

SOM ENERGIA, SCCL-ren ESTATUTUAK

2014ko maiatzean erregistratuak

I. ATALA – IZENA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA

1. Artikulua.- Izen soziala

SOM ENERGIA, SCCL izenarekin, irabazi-asmorik gabeko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen sozietate kooperatiboa eratu egiten da, Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legeko antolamenduei lotuta, nortasun juridiko osoz eta behar sozialarekiko bere bazkideen erantzukizunei mugatua.

2. Artikulua.- Helburua

Sozietate kooperatibo honen helburua energia berriztagarrietatik datozen energia elektrikoaren komertzializazioa, banaketa eta ekoizpena da, baita zerbitzu hauekin erlazionatutako produktuen banaketa eta beste zerbitzuen ematea ere. Kooperatibak bere helburu soziala zuzeneko edo zeharkako eran eta, ahal den heinean, beste sozietate batzuetako parte-hartzearen bitartez garatu ahal izango du.

Kooperatibak bere jarduera kooperatiboa bazkide ez diren beste pertsonekin garatuko du, muga bakarrak Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legeak azaltzen dituenak izanda.

3. Artikulua.- Iraupena

Sozietatearen iraupena mugagabea da eta bere jarduerak 2011ko urtarrilaren 1ean hasiko dira.

4. Artikulua.- Helbide soziala eta jardun-eremua

Helbide soziala Gironan, Pic de Peguera kalean 11 zenbakian (Ate A2, Bulego 0.8), 17003 posta-kodearekin kokatzen da; eta, udal-termino beraren barruan beste leku batera joan daiteke Kontseilu Errektorearen akordioagatik. Beste herri batentzako helbide-aldaketak artikulu hau aldatuko duen Biltzar Nagusiaren akordioa eskatzen du.

Kooperatibak bere jarduera Katalunian garatzen du batez ere.

II. ATALA.- BAZKIDEAK

5. Artikulua.- Bazkide izan ahal diren pertsonak

Pertsona fisiko edo juridiko guztiak, Estatutu hauetako 2. artikuluan ezarritako helburuak partekatuz, kooperatiba honetako bazkide izan daitezke, euren familiaren eta beren erabilpenerako eta kontsumorako ondasunak lortu nahi dituztenak, prezio, informazio, aukera eta kalitate baldintza hoberenetan.

Kooperatibaren bazkide kolaboratzaileak ere izan daitezke, jarduera kooperatibo nagusia ez garatu arren, kooperatibaren helburu sozialaren lorpenean ere lagun dezaketen pertsona fisiko

eta juridikoak. Bi bazkide kolaboratzaile mota daude, bazkide kolaboratzaile pribatua eta bazkide kolaboratzaile publikoa.

6. Artikulua.- Onarpen-prozesua

1.- Bazkide bezala pertsona baten onarpenerako hurrengo baldintzak bete behar dira:

- a) Estatutu hauetako 5. artikuluan seinalatutakoa.
- b) Jarduteko gaitasuna izatea Kode Zibila agintzen duenaren arabera.
- c) Kooperatiban hasi nahi duen pertsonak lan-bazkidea izaten eskatzen badu, frogaldia jar daiteke, askoz jota urte bateko iraupenarekin. Aldi horretan, edozein alde aske ebatz dezake erlazioa.
- d) Nahitaezko ekarpen minimoa kapital sozialean izenpetzea eta harpidetzaren unean dirua jartzea.

2.- Interesatuak Kontseilu Errektoreari onarpenaren eskaera aurkeztu behar dio idatziz, postaren edota posta elektronikoaren bidez.

3.- Kontseilu Errektoreari dagokio bazkide berrien onarpenaren erabakia, eta eskatzailearen eskaera ezagutu zuen momentutik gehienez bi hilabeteko epean ebatzi behar du eta interesatuari onarpena edo ukapena idatziz jakinarazi behar dio. Erantzun ezak esan nahi izango du eskaera ukatua izan dela. Horrela bada, akordioa Legean edo Estatutu hauetan oinarritua izango da, irizpide objektiboak jarraituz. Ukapena errekurritu daiteke Errekurtso Batzordearen edo, hau ez badago, Biltzar Nagusiaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiaren jakinarazpenaren datatik.

Onarpena izanez gero, Biltzar Nagusiaren akordioa, helbide sozialean erakutsi behar dena, beste bazkide batzuk ere errekurritu dezakete, Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legean azaltzen denaren arabera.

7. Artikulua.- Langileen sarbidea lan-bazkide izateko.

Lan-kontratu mugagabea duten langileek aukera dezakete lan-bazkidea izateko, Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legeko 27. artikuluan azaltzen denaren arabera.

Lan-bazkideei Kataluniako Kooperatibetako 18/2000 Legean aurrez ikusitako Lan Elkartutako kooperatiben bazkideentzako arauak ezarriko zaizkie.

8. Artikulua.- Bazkideen betebeharrak

1.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Hitzemandako ekarpenaren ordainketa egitea.
- b) Deitutako Biltzar Nagusietara eta gainerako organoetara bileretara joatea.
- c) Sozietatearen karguak onartzea, arrazoi justifikatuak salbu.
- d) Gobernu-organoek baliozkotasunez hartutako akordioak betetzea.
- e) Lan-bazkideek ezin izango dute lan egin ezta lagundu ere kooperatibaren eginkizun sozialen aurkako kompetentzia-jardueretan, Kontseilu Errektoreak baimendutakoak salbu.
- f)) Kooperatibaren datuei edo zereginei buruzko sekretua gordetzea, haien dibulgazioak interes sozialak kalte baditzake.

- g) Legezko arauetatik eta Estatutuetatik ateratzen diren beste betebeharrak, baita ere gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako akordioak betetzea.
- h) Kooperatibaren berezko jardueretan parte hartzea eta jarduera kooperatiboa burutzea.
- i) Heziketa-jardueretan eta beste erakundeekiko lankidetzan parte hartzea.

9. Artikulua.- Bazkideen eskubideak

Bazkideen eskubideak honako hauek dira:

- a) Kooperatibak hornitzen dituen artikuluak erostea eta zerbitzuen etekina ateratzea, kooperatibaren helburu sozialaren arabera.
- b) Sozietatearen organoen karguetarako aukeratzea eta aukeratua izatea.
- c) Biltzar Nagusiaren akordio guztietan ahotsarekin zein botoarekin parte hartzea, baita gainerako organoetan badagokie ere.
- d) Informazioa jasotzea, Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legeko 24. eta 25. artikuluetan azaltzen denaren arabera.
- e) Ekarpeneren zenbatekoa berreskuratzea, eguneraturik badagokio, bajaran, kitapenik edo entitatearen transformaziorik egotekotan; eskubide hau ez da eragingo eskubideen aldi baterako zehapen espediente delatzen eta. Honek guztiak 14. artikuluan ezarritako ekarpenei buruzko informazioa jartzeari utzi gabe. Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak diru-itzultze bueltatzeari uko egin lezake.
- f) Legezko arauetatik eta Estatutuetatik ateratzen diren besteak, baita ere gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako akordioetatik.

10. Artikulua.- Informazioa jasotzeko eskubidea

Informazio-eskubidea erabiltzeko, bazkideek eskura dauzkate Kataluniako Kooperatibetako, uztailaren 5eko, 18/2002 Legeko 24. eta 25. artikuluetan azaltzen diren baliabideak. Lege honek

aurreikusten du, besteak beste, Barne-Araudiko eta Estatutu hauetako kopia jasotzea, baita agiri hauetako aldaketei buruzko informazioa edota gobernu-organismoen akordioei buruzkoa jasotzea ere, batez ere, pertsonalki eragiten dietenak; bere egoera ekonomikoa kontsultatzea; bazkideen erregistro-liburua eta Biltzar Nagusiaren akta-liburua aztertzea, baita ziurtagiriak eskatzea ere; eta, Ohizko Biltzar Nagusiaren deialdiko egunetik, helbide soziala, balantzea, galeretako eta irabazietako kontura eta argitzeko memoria, emaitzen aplikaziorako proposamena, kontu-hartzailetzaren txostena eta, ahal den heinean, kontu-ikuskaritzako txostena. Aldi berean, haiek behar duten dokumentu hauetako kopia bat edo informazio horren zabalkuntza jasotzeko eskubidea dute, baldin eta Biltzar Nagusia gertatu baino 5 egun lehenago idatziz eskatzen badute.

11. Artikulua.- Bazkideen ondare-erantzukizuna

Bazkideen ondare-erantzukizuna obligazio sozialak erosteagatik izenpetutako kapital ekarpenetara mugatzen da (nahitaezkoak eta borondatezkoak), bai ordainduta ala ez ordainduta, eta erkidatutako sinpleko izaera dute.

Baja hartzen duen bazkideak arduraduna izaten jarraitzen du kooperatibaren aurrean, bost urtetan zehar, bajaren data baino lehenagoko kooperatibak hartutako obligazioengatik eta ez-amortizatutako inbertsioengatik.

12. Artikulua.- Bazkideen baja

Bazkideak borondatez baja har dezake, Kontseilu Errektoreari idatziz bi hilabeteko aurrerapenarekin abisatuz. Aurre abisuaren ez betetzea ez justifikatutako baja bezala hartuko da.

Kooperatiban 2 hilabeteko gutxiengo egonaldia jartzen da; hau betetzen ez bada, ez justifikatutako baja bezala hartuko da, bat etorritako erantzukizunei utzi gabe.

13. Artikulua.- Baja justifikatua eta ez justifikatua

1.- Baja justifikatua ere hartzen da hurrengo kasuetan:

- a) Bazkidea bizilekuaz aldatzen bada kooperatibaren hornikuntza zentroetatik urrundutako beste populazio batera.
- b) Bazkidea bat ez baletor Biltzar Nagusiak kooperatibaren fusioa erabakia hartuko balu, zatiketa edo transformazioa egiteko, baldin eta bazkideak aurkako botoa eman badu Biltzarrean, edo baldin eta arrazoi justifikatuagatik ez badao, hitzarmenekiko desadostasuna idatziz bidali behar dio Kontseilu Nagusiaren presidenteari, hurrengo hilabeteko gehieneko epean fusio-akordioaren argitalpen data egin eta gero.
- c) Biltzar Nagusiaren hitzarmenarekiko desadostasunik egotekotan Kooperatiba eraldatzeko, baldin eta Kontseilu Nagusiari komunikatzen bazaio idatziz, akordioaren hartzerako hurrengo hilabeteko epea barru.
- d) Biltzar Nagusiaren hitzarmenarekiko desadostasunik egotekotan kapital sozialerako bazkideko nahitaezko ekarpenak areagotzeko, baldin eta bazkideak aurkako botoa eman badu Biltzarrean eta bere oposizioa agerian jarri badu aktan, baita arrazoi justifikatuagatik Biltzar Nagusietara joan ez den bazkiderik egotekotan ere, baldin eta baja eskatzen badute hitzarmena hartu denetik hilabete bateko epean. Kasu hauetan onartutako ekarpen berriak ez zaizkie eskatuko.
- e) Bajaren kasuan diru-itzultzeari eskubidearekiko ekarpenen eraldaketatik Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabeko diru-itzultzaileari uko egiteko ekarpenetara, edo kontrako eraldaketa, akordioarekin desadostasuna erakusten duten bazkideen baja. Bat ez datozen bazkide hauek aurkako botoa eman behar zuten, biltzar-agirian euren oposizioa agerian jarritz. Baita arrazoi justifikatuagatik Biltzar Nagusietara joan ez den bazkiderik egotekotan ere, baldin eta baja eskatzen badute aipatutako eraldaketa-hitzarmena hartu denetik hilabete bateko epean.

2.- Bazkide batek Kontseilu Errektorearen erabakien aurka helegitea aurkez dezake bazkidearen bajaren efektuei eta kalifikazioei buruz eta Biltzar Nagusiaren aurrean bere jakinarazpenera aurkeztu behar du derrigorrez hurrengo hilabete barru, Helegitea isilpeko bozketan ebatzi behar da hiru hilabeteko epean, askoz jota; eta Biltzar Nagusiaren erabakiaren gaineko desadostasunak eskumen eskudunari zuzen dakizkioke.

14. Artikulua.- Baja baten ondorio ekonomikoak. Diru-itzultzerako eskubidea.

1. Bazkide baten baja suertatzean, honek kapital sozialerako bere ekarpenen diru-itzultzerako eskubidea du, borondatezkoak eta nahitaezkoak. Honek guztiak Lege honetan eta Estatutu sozialetan ezarritako ekarpenei buruzko informazioa jartzeari utzi gabe. Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak diru-itzultze bueltatzeari uko egin liezaioke.

2. Ekarpene sozialen diru-itzultzerako prozedura, bazkide baten bajari dagokionez, hurrengo irizpideetara egokitu behar da:

- a) Bazkideak baja eragin dezan ekonomia-ekitaldiaren urteroko kontuen onespentiko hilabete bateko epean ekin behar zaio kapital sozialean jartzeari bere ekarpenen diru-itzultzearen behin betiko zenbatekoa, baja gertatzen den ekonomia-ekitaldia ezagututa eta bazkideari esleitutako emaitzen egozpena kontuan hartuta.

Kontseilu Errektoreak zenbateko hau behin-behineko kontuen onetsi baino lehen jar dezake eta, ados badago, diru-itzultzea baimenduko du behin betikoaren kontura.

- b) Diru-itzultzearen behin betiko ondoriozko zenbatekotik, aurreko paragrafoaren arabera, hurrengo kenketak egin litezke:
- * Bazkideak kooperatibari, edozein kontzeptugatik, zor dizkion kantitate guztiak.
 - * Ez justifikatutako bajagatik edo egozpenagatik kenketak
 - *Egotzi eta kuantifikatu daitezkeen erantzukizunak Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legeko 26.2 artikuluan azaltzen diren araberako ondare-erantzukizunari utzi gabe

3. Aurreko paragrafoetan aurrez azaldutakoaz gainera, hurrengo kenketak egin daitezke:

- a) Baja justifikatzen bada, ez da inongo kenketarik egingo.
 - b) Borondatezko ekarpenei buruzko kenketarik ez da izango.
1. Kooperatibak ekarpen sozialen ordainketa egin behar du bazkidearekin adostutako epean, edo Kontseilu Errektoreak finkatzen duen epean, bajaren datatik bost urte baino gehiagokoa ezin izanda. Denboraldi honetan, bajaran dagoen bazkideak diruaren legezko interesa, bi puntutan gehituta, eskuratzeko eskubidea du diru-itzultzeko kantitatean.

15. Artikulua.- Bazkideen hutsegiteak

Bazkideek egindako hutsegiteak, euren garrantzia, haraindikotasuna eta nahitasuna kontuan hartuta, sailkatuko dira arinak, larriak eta oso larriak bezala.

16. Artikulua.- Hutsegite arinak

Hutsegite arinak honako hauek dira:

1. Beste bazkide batenganako arazorik gabeko begirunerik edo errespeturik eza eta hau Kontseilu Nagusiak kontuan har zezala.
2. Bizileku-aldaketaren komunikazioa kooperatibari ez esatea, hori gertatu zen momentutik hurrengo hilabetea barru.
3. Organo eskudunek akordioak edo instrukzioak baliozkotasunez emandakoak haustea.
4. Barne-Araudiak edo Biltzar Nagusiak jartzen duten beste edozein.

17. Artikulua.- Hutsegite larriak

Hutsegite larriak honako hauek dira:

1. Bazkide batek aukeratu izandako karguak edo funtzioak ez onartzea, edo dimisioa aurkeztea, Kontseilu Nagusiaren edo Biltzar Nagusiaren ustez arrazoi justifikatu bat izan ezean.
2. Kooperatibaren sekretu-urratzea, kalteak eragiteko arriskua izanda.
3. Behar ekonomikoak ez betetzea, bai aldizkako kuotako ordainketari, bai kapital-ekarpenei buruzkoak.

4. Agindu estatutariokoak ez betetzea edo jarduera egitea ala hura egiteari uztea, kooperatibarako kalte larriak ekartzeari dagokionez.
5. Hutsegite arinetako errepikatzea, horiengatik bazkidea aurreko hiru urteetan zigortua izanda.

18. Artikulua.- Hutsegite oso larriak

Hutsegite oso larriak honako hauek dira:

1. Bazkideak guztien kapitala edo sozietate-izena negozio partikularretarako erabiltzea.
2. Behar sozialak haustea, kooperatiba kaltetuz
3. Kooperatibarako kaltegarriak diren jarduerak egitea
4. Kontseilu Errektorearen kide bat behin eta berriz ez joatea deitutako ekitaldi sozialetara.
5. Behar ekonomikoen ez betetzea behin eta berriz.
6. Kooperatibarekiko kompetentzia-operazioak eta datu nabarmenak ezkutatzea
7. Hutsegite arinetako edo larrietako errepikatzea, horiengatik bazkidea aurreko hiru urteetan zigortua izanda.
8. Dokumentuak faltsutzea, sinadurak, zigiluak edo antzekoak, batez ere, eginkizun hauek bazkideekiko kooperatibaren erlazioa kolokan jartzen badute.

19. Artikulua.- Zigorrak

Hutsegite oso larriak hurrengo aukeretakoren batekin edo gehiagorekin zigortuko dira:

1. Hutsegite larrietarako ezarritako zigorrak.
2. Bost urtetako gaitasungabetzea, askoz jota, organo sozialetako karguetan.
3. Egoztea.

Hutsegite larriak hurrengo aukeretakoren batekin edo gehiagorekin zigortuko dira:

1. Hutsegite arinetarako ezarritako zigorrak.
2. Urte bateko gaitasungabetzea, askoz jota, organo sozialetako karguetan.

Hutsegite arinak hurrengo aukeretakoren batekin edo gehiagorekin zigortuko dira:

1. Idatzizko ohartarazpen bat.

20. Artikulua.- Zigortze prozedura

Kontseilu Errektoreak, zehatzeko ahalean diharduenak, hutsegiteak zigortu behar ditu agertutako pertsonaren aurreko audientzia nahitaezkoa izanez hamabost eguneko epe batean. Hasitako espedientea bideratu behar da bi hilabeteko gehienezko epean, epe hori agortu ostean Kontseilu Errektoreak erabaki behar du espedientea.

Zigor espedientearen hasieran hutsegite larriak edota oso larriak egiteagatik edota egozte-espedientearen hasieran, Kontseilu Nagusiak egokitutako badaezpadako neurriak har ditzake, batez ere bazkidearen eskubideen etenaldia, lankide-jarduera garatzekoa sartuta. Informazio eskubidea ezin izango da inola ere eten.

Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsua aurkez daiteke Biltzar Nagusiaren aurrean, eta, Errekurtsio Batzordearen aurrean balego, zigorraren jakinarazpenetiko hilabete bateko epean. Biltzar Nagusiak errekurtsua konpontzeko gehienezko epea sei hilabetekoa da, errekurtsuaren aurkezpenaren datatik.

Zigor-akordioa edo, badator, Biltzar Nagusiaren edota Errekurtso Batzordearen berrespena aurka egin daiteke aurreko jakinarazpenetiko hilabete bateko epean, Kataluniako Kooperatibetako uztailaren 5eko 18/2002 Legeko izapidearen arabera akordio sozialak aurka egiteko eta aipatutako Legeko 158. artikulua azaldutako araututako kasuetan, jurisdikzio arruntaren aurrean.

Kontseilu Errektoreak bakarrik erabaki dezake bazkide baten egozte, azken helburuko espediente baten bidez. Biltzar Nagusiaren aurreko helegitea, pertsona interesatuaren aurretiko entzunaldiarekin, isilpeko bozketan erabakiko da. Biltzar Nagusiak egozte ontzat edo txartzat hartuko du. Egozte berrestekotan, bazkidearen baja bideratuko da.

Egozteko akordioa indarrean sartuko da Biltzar Nagusiaren akordioaren berrespena jakinarazten den momentuan, edo helegitea jartzeko epea agortutakoan.

Hutsegite arinek hilabete bateko epean preskribatzen dute; hutsegite larriek bi hilabeteko epean eta hutsegite oso larriek hiru hilabeteko epean. Preskripzio epea martxan jartzen da Kontseilu Nagusiak arau-haustearen ezaguera ezagutzen duen momentutik edota, askoz jota, arau-haustea gertatu izan zen momentutik sei hilabeteko epean. Preskripzio epea espediente zigortzailea hasterakoan eteten da, eta berriro martxan jartzen da, hiru hilabeteko epean erabakirik ez balego.

III. ATALA- EKONOMIA ARAUBIDEA

21. Artikulua.- Kapital soziala

Kapital soziala bazkideen nahitaezko ekarpenekin osatua dago, baita gehitzen diren borondatezko ekarpenekin ere.

- a) Bazkideen nahitaezko ekarpenak diru-sarreratzat hartzen dira eta Kontseilu Errektoreak diru-itzultzeari, baldintzarik gabe, uko egin diezaiokie.
- b) Bazkideen borondatezko ekarpenak diru-itzultzeko eskubidedun ekarpentzat hartzen dira, bajaren kasuan.
- c) Bazkide kolaboratzaileen nahitaezko eta borondatezko ekarpenak diru-itzultzeko eskubidedun ekarpentzat hartzen dira, bajaren kasuan.

Ekarpenak tituluen edo libreta izendunen bitartez egiaztatzen dira, horiek ekarpenak, eguneratzeak eta interesak argi eta garbi islatu behar dituzte.

Kapital sozialerako bai bazkideen nahitaezko ekarpenek bai borondatezkoek ez dute, inola ere, diruaren legezko interesa baino gehiagorik jasotzerik izango, haiei dagozkien gaurkotzei utzi gabe.

Titulu batek ehun euroko balio minimoa eduki behar du; bazkide kontsumitzaile bakoitzak edo erabiltzaileak gutxienez titulu bat eduki behar du derrigorrez eta lan-bazkide batek bost titulu, eta ekarpen osoa ordaindu behar da. Bazkide kolaboratzaile pribatuak 100 €ko ekarpena egingo du eta bazkide kolaboratzaile publikoak kasu bakoitzean itunduko den ekarpena.

Ekarpenak ondareak, eskubideak edo kooperatibarako zerbitzu erregularrak ere izan daitezke. Kontseilu Errektoreak zuzen eta zorrotzez balioetsi egingo ditu erakarpen hauek. Biltzar Nagusiaren aurrean erabakia berrikus daiteke.

Harpidetza formalizatzeko unean, bazkideek nahitaezko ekarpenaren %100a jarri behar dute, Kontseilu Errektoreak proposatutako eran.

Geroago kooperatibara sartzen diren bazkideek ekarpenak jarriko dituzte artikuluko honetako balditzetan islatzen den eran. Dena den, egoera honek eguneratze bereizleak ekarriko ditu, Kataluniako Kooperatibetako 18/2000 Legearen adostasunekin.

Kooperatibaren kapital sozial minimoa hiru mila eurokoa izango da. Osaketaren unean, kapital sozial minimoak erabat izenpetuta eta jarrita egon behar du.

22. Artikulua.- Nahitaezko ekarpen berriak kapital sozialari

Biltzar Nagusiak, ordezkaturakoen eta bertaraturakoen pertsonen botoetako bi heren gehiengoagatik, kapital sozialari nahitaezko ekarpen berriak ematea ebatz dezake, kopurua, epea eta ordainketa-baldintzak jarritz. Kapital sozialerako ekarpen berriko eskaerarekin adostasunik gabeko bazkideak bere baja eska dezake, Estatutu hauetako 13. artikuluaaren arabera.

23. Artikulua.- Borondatezko ekarpenak kapital sozialari

Biltzar Nagusiak, ordezkaturakoen eta bertaraturakoen pertsonen botoetako gehiengo soilagatik, kapital sozialari borondatezko ekarpen berriak ematea ebatz dezake eta epean eta onarpen-akordioak ezartzen dituen baldintzetan dirua jarri behar da.

24. Artikulua.- Interesak

Kapital sozialerako nahitaezko ekarpenek ez dute inongo interesik sortzen. Kapital sozialerako borondatezko interesak sor ditzakete, onarpen-akordioak onartzen badu, baina ez da inola ere diruaren legezko interesa baino gehiagorik ahal izango, gaurkotzeari dagokion kalterik egin gabe.

25. Artikulua.- Erakarpenen igorpena

Bazkideen, lan-bazkideen eta kontsumitzaileen nahitaezko eta borondatezko ekarpenen igorpenak honako hauek izan daitezke:

- a) bizidunen arteko igorpena (“inter vivos”), bazkideen artean, Estatutu sozialetan jarritako terminoak jarraituz, eta Kooperatibaren iragarki-taulan agertuz, Kontseilu Errektoreak aurretiko baimenarekin.
- b) herentzia baten bidezko igorpena (“mortis causa”). Oinordekoek eragilea bere posizio juridikoan ordezkatzeko dute, kooperatibaranzko zituen beharretan eta eskubideetan subrogatuz. Bazkide batek pertsonaleko lankide-jardueraren bat egingo balu, oinordekoek gertaera eragiletiko sei hilabeteko gehieneko epean, bazkide bezala alta eskatu, estatutu sozialek ezarritako baldintzak beteko balute, edo kapital sozialari eragilearen ekarpenen balio bereko mailegua kitatu, Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legeko 60. artikuluan azaltzen denaren arabera balioetsita.

26. Artikulua.- Kapital sozialaren murrizketa bazkidearen baja dela eta.

Bazkideentzako edo oinordekoentzako ekarpenen itzultzearen ondorioz, kapital soziala Estatutuaren ezarritako minimo azpitik geratuko balitz, Biltzar Nagusiak kapitalaren murriztapena hitzartu behar du legalki estatutuen ezarritako ondoriozko aldaketarekin. Kapital soziala ezin da sei hilabete baino gehiagotan egon gutxiengo legezko mailaren azpitik.

27. Artikulua.- Ekonomia-ekitaldia, emaitzak, soberakinak

Kooperatibaren ekonomia-ekitaldia urtarilaren 1etik abenduaren 31ra hedatzen da. Ekitaldi bakoitzeko inbentario bat, balantze bat, emaitza kontu bat eta memoria bat egin behar dira.

Legearen 63.3 artikuluari jarraituz, ekitaldiaren emaitzen erabakia kontabilitateko araudiaren arabera egiten da, baina Kataluniako Kooperatibetako Legearen 65. artikuluan zerrendaturako

partidak gastatuak bezala kontuan hartzen dira. Lankideetako eta lankide kanpoko emaitzen erabakia egiten da Legearen 64. artikuluari eta aplikagarriak gertatzen diren beste arauei jarraituz.

Kooperatibaren aparteko emaitzak zehazteko, operazio horien diru-sarrerak eta gastuak kontuan hartu behar dira emaitza lortu ahal izateko, baita Kooperatibaren gastu orokorrei dagokien zatia ere, oinarritutako egozte-irizpideen arabera. Kooperatibaren aparteko emaitzak izango dira bazkide ez diren beste pertsonetik egindako operazio kooperatibekin lortutakoak. Emaitza horiek, beti, modu banandurik kontabilizatu behar izango dira, euren kopurua jakin ahal izateko.

28. Artikulua.- Soberakinen erabilera

Lankidetzaren emaitzaren erabakirako kontabilizatutako soberakinetatik, aurreko ekitaldiko edozein motatako galerak kenduta eta sozietate-zergak ordaindu baino lehen, hurrengo ehunekoak, gutxienez, bideratu behar dira:

- a) Orokorrean, %30a nahitaezko erreserba-fondora eta %10a kooperatibaren hezkuntza eta sustapeneko fondora.
- b) Balantze-erregulaziotik datorren soberakinen %50a, nahitaezko erreserba-fondora.
- c) Ibilgetu materialaren edo materiagabearen elementuak saldu izanagatik lortutako gainbalioetatik datorren soberakinen %100a, Legeko 64.2.f, artikulua arabera, nahitaezko erreserba-fondora.

Sozietate-Zerga ordaindu ostean, gainerako soberakin kooperatiboak zuzendu behar izango dira banatu gabeko borondatezko erreserba-fondora, Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legeko artikulua esaten duenaren arabera, irabazi-asmorik gabeko kooperatibetarako.

Kooperatiba kanpoko emaitzak, bereziki ez bazkideekiko sortutako lankide-jardueren emaitzak, aurreko ekitaldiko edozein motatako galerak kenduta eta sozietate-zerga ordaindu baino lehen, nahitaezko erreserba-fondora zuzenduko dira osorik.

29. Artikulua.- Galeren egozpena

Ekitaldi ekonomikoko ondoriozko galeren konpentsazioa egingo da, Kataluniako Kooperatibetako Legeko 67. artikulua arabera, hurrengo arauak jarraituz:

1. Baliozkoa da galerak balizko emaitza positiboen kargu amortizatzeko kontu berezira egoztea, abenduaren 27ko Estatuaren Legeak 43/1995 baimentzen duen gehienezko epea barru, Sozietate-Zergei buruzko lege hau edo zerga-legeria espezifiko agindutakoaren arabera.
2. Galeren %50a heldu arte egotz daiteke nahitaezko erreserba-fondoaren kargura. Egozpena egiteko fondo honetan, osoz edo zatiz erabiliz gero, ezin izango dira itzultze kooperatiboak edota beste emaitza baikor banandu modukoak aplikatu, leporatu edo banandu, fondo hau bere erabilpenari baino lehenagoko kantitatea berreskuratu arte.
3. Galeren osotasuna egotz daitezke borondatezko banandu gabeko erreserba-fondora, aurreko artikuluan aipatutakoa.
4. Nahitaezko edo borondatezko erreserbekin konpentsatzen ez den kopurua egotzi behar zaie bazkideei, bere jarduera kooperatiboaren arabera, eta ekitaldi ekonomiko batean suertatutako galerak hurrengo ekitaldi ekonomikoaren barru zuzenean asetu behar ditu, kapital sozialeko ekarpenen kenketen bitartez. Epea amaitu ostean eta galerek konpentsatu gabe badiraute, bazkideak zuzenean asetu behar ditu kapitalerako bere ekarpenen mugaraino, indarreko legeriaren arabera, porrot egitea edo ekarpen sozialen gehikuntza erabaki ezean, Kataluniako Kooperatibetako Legearen 54. artikuluari utzi gabe.

30. Artikulua.- Nahitaezko Erreserba-Fondoa

Nahitaezko erreserba-fondoa banaezina da eta horrela osatuta dago:

- a) Estatutu hauetako 28. artikuluan jarritako ekitaldi bakoitzaren soberakinen gaineko ehunekoa.
- b) Kooperatibaren kanpoko emaitzen gaineko ehunekoa.
- i) Nahitaezko ekarpenei buruzko kenketak, Estatutu hauetako 14. artikuluan jarritakoak, bazkidearen bajaren ustezko kasuan.
- d) Sarrerako kuotekin edota ezarritako aldizkako kuotekin.

31. Artikulua.- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboaren Fondoa

Hezkuntza eta sustapen kooperatiboaren fondoa banaezina da baita bahituezina ere eta horrela osatuta dago:

- a) Estatutu hauetako 28. artikuluan ezarritako ekitaldi bakoitzaren soberakinen gaineko ehunekoa.
- b) Bere bazkideei kooperatibak inposatzen dizkien isunekin eta beste zigor batzuekin, diziplinazko bidegatik ezarrita.
 - i) Bazkideengandik edo bazkide ez diren pertsonengandik jasotako diru-laguntzekin, dohaintzekin eta beste laguntza mota batekin fondo honetako berezko helburuak betetzeko.
 - d) Soberakin erabilgarriekin, beste pertsonetikiko egindako operazioei esleituta, nahitaezko hornidurak egin ondoren.

Biltzar Nagusiak fondo honetako erabileren oinarrizko jarraibideak ezarri behar ditu, bazkideen, teknika kooperatiboan langileen heziketara zuzendu behar dena, eta arreta ipini eragin sozialeko eta kooperatiben arteko harremaneko helburuetan.

32. Artikulua.- Dokumentazio soziala eta kontabilitatea

Kooperatibak hurrengo liburuak ordenatuta eta egunean izan behar ditu:

- 1) Bazkideen erregistroa.
- 2) Ekarpen sozialen erregistroa.
- 3) Biltzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen eta Kontu-Hartzaileen bilera-agiriak, baita Sailenak edo Prestatze-Biltzarrenak, baleude.
- 4) Inbentarioa eta balantzea.
- 5) Egunkaria.

Kontabilitatea Merkataritza-Kodean adierazitako irizpideekin ados eraman behar da, Kontabilitate-Plan orokorarekin eta kooperatibetako eta beste araudi aplikagarriko Legeak ezartzen dituen berezitasunekiko gainerako kontabilitateko araudiarekin ados.

IV. ATALA. BARRUKO ANTOLAMENDU FUNTZIONALA

33. Artikulua.- Funtsezko elementuak

Barne-Araudi batek finkatu ahal izango du antolamendu funtzionala. Biltzar Nagusiak Barne-Araudi hori onetsi behar du derrigorrez.

Lan-bazkideetako, egongo balira, lan-baldintzak Barne-Araudian finkatu behar dira, baina ezin izango dira besteren konturako langileen jarduerarako eskualdeko arau orokorretan edo lan-hitzarmenetan ezarritakoak baino txikiagoak izan. Aldi berean, ezin izango dira besteren konturako langileen jarduerarako eskualdeko arau orokorretan edo lan-hitzarmenetan ezarritakoak %150 baino gehiagokoak izan.

V. ATALA. KOOPERATIBAREN GOBERNUA, KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA

34. Artikulua.- Organo sozialak

Sozietate-kooperatibaren organoak honako hauek dira:

- 1) Biltzar Nagusia
- 2) Kontseilu Errektorea
- 3) Kontu-hartzaileak

35. Artikulua.- Biltzar Nagusia

Biltzar Nagusia, behar bezala deitutako bazkideek sortuta, borondate sozialaren adierazpeneko organo goren da.

Biltzar Nagusiak hartutako akordioek bazkideak osotasunean behartzen dituzte, disidentek eta bilerara joan ez zirenak barne. Horrek ez du bere aurka egitea galarazten, Kooperatibetako Legearen 38. artikulua agintzen duenari jarraituz.

36. Artikulua.- Biltzar Nagusiaren kompetentziak

Biltzar Nagusiak kooperatibaren edozein materia eztabaida eta erabaki dezake, beste organo sozial bati erantsi zaion materia salbu. Dena den, bere akordioa beharrezkoa da hurrengo ekitaldietan:

- a) a) Kontseilu Nagusiaren, kontu-hartzaileen, kontu-ikuskarien, likidatzaileen eta Errekurtso Batzordearen izendapena eta ezeztatzea, baita euren lan-sariaren kopurua ezartzeko oinarriak jartzea ere.
- b) b) Kudeaketa sozialaren eta urteroko kontuen, kudeaketa-txostenaren eta soberakin erabilgarrien erabileren edo galeren egoztearen aplikazioko miaketa.
- c) Estatutuen aldaketa eta kooperatibaren Barne-Araudiaren onespena edota aldaketa.
- d) Nahitaezko ekarpen berriko onspena; borondatezko ekarpeneko eta bazkide-kolaboratzaileen ekarpenetako onarpena, badago; kapital sozialerako ekarpenen balioaren gaurkotzea; bazkide berrien ekarpenen finkapena, sarrerako edo aldizkako kuotak ezarpena eta kapital sozialerako borondatezko ekarpenetik harpidetu behar duen interes-tasaren zehaztapena.
- e) Obligazio-jaulkipenen, partaidetza-tituluen eta beste finantzaketa-mota batzuen jaulkipena.
- f) Bazkideen borondatezko finantzaketako onarpena.
- g) Fusioa, zatiketa, transformazioa eta kooperatibaren disoluzioa.
- h) Estatutuen arabera, kooperatibaren egitura ekonomiko, sozial, antolatzaile edo funtzionalaren funtsezko aldaketa dakarren erabaki guztia.
- i) Bigarren graduko kooperatibetako eta lankideko taldeetako eraketa edo talde hauetarako eranstea eratuta badaude, lankidetzatza arteko hitzarmenetan eta Kooperatibetako Legearen 126. eta 127. artikuluetan kontuan hartutako kolaborazio ekonomikoko beste

era batzuetan parte hartzea, entitate adierazgarriari eta entitate horietatik bereizteari atxikitzea.

- j) Kontseilu Nagusiak baimendu dituen sailetakoko sorreraren edo disoluzioaren berrespena.
- k) Kontseilu Nagusiaren, kontu-hartzaileen, kontu-ikuskatzaileen eta likidatzaileen kontrako erantzukizuneko eragin sozialeko gauzatzea.
- l) Estatutuek edota lege-araudiek horrela esaten dituen beste kasu guztiak.

Biltzar Nagusiari dagozkion konpetentziak eta horiei buruz nahitaez erabaki behar dituenak ezin dira eskuordetu Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legearen 125. artikuluan aurrez ikusitakoa izan ezik.

37. Artikulua.- Biltzar-motak: ohikoa, ezohikoa, unibertsala

Biltzar Nagusiak Ohikoak edo Ezohikoak izan daitezke.

Kontseilu Errektoreak urtean behin Ohiko Biltzar Nagusira deitu behar du, ekitaldi-ekonomikoko itxieratik hurrengo sei hilabete barru. Horrek honako funtzio nagusi hauek ditu: Kontseilu Errektoreak egindako kudeaketa aztertzea, urteroko kontuak onartzea, hori badagokio, eta emaitza-aplikazioaren hitzartzea.

Aurreko paragrafoko baldintzetara egokitzen ez diren Biltzar Nagusi orokor guztiak Ezohikoak izango dira.

Biltzar Unibertsala baliozkotasunez eratuko da bazkide guztiak bertan egonda haietako inork hura ospatzearen kontra egiten ez badu.

38. Artikulua.- Ohiko eta Ezohiko Biltzarren deialdia

Biltzar Nagusirako deialdia, Ohikoa ala Ezohikoa, Kontseilu Errektoreak egin behar du kooperatibaren sozietate-helbidean eta Kooperatibaren lantoki eta establezimendu guztietan iragarpen baten bitartez eta, gainera, bazkideentzako komunikazioaren bitartez edo posta elektronikoz. Deialdia bilera data baino hamabost egun lehenago, gutxienez eta hogeita hamar egun, gehienez, egin behar da. Deialdiak argi eta garbi adierazi behar ditu gai-zerrenda, lekua, eguna eta bilerako ordua lehen deialdian zein bigarreanean. Biltzar Nagusiak hurrengo bilera non egingo den zehatz dezake lokalaren eskuragarritasun eta egokitasun-irizpideak kontuan hartuta. Biltzar Nagusiak herria zehazten ez badu, Kontseilu Errektoreak irizpide bera jarraituz egingo du.

Kontseilu Errektoreak Ezohiko Biltzar Nagusi batera dei dezake baldin eta kooperatibaren interesetarako egokia bada. Halaber, Kontu-Hartzailearen batek edo boto sozialen %10ak eskatzen badu.

Kontseilu Errektoreak Ezohiko Biltzar Nagusira ez badu deitzen beharrezkoa den kasuetan, bazkideek deialdia eska diezaioketen epailearen organoari, Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legeko 31. artikuluan ezarritako baldintzetan.

39. Artikulua.- Biltzarren eraketa

Biltzar Nagusiak baliozkotasunez biltzen da, lehenengo deialdian, boto sozialetako erdia baino gehiago bilduta edo ordezkatuta izanda. Bigarren deialdia baliozkotasunez biltzen da boto sozialetako edozein zenbaki izanda.

Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legearen 32.3 artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, Biltzar Nagusira bertaratzea ulertzen da horretan parte hartzea, fisikoki zein birtualki, prozedura telematikoen bitartez.

Kontseilu Errektorearen presidentea edo bere funtzioetan diharduenak Biltzar Nagusiaren burua da; hala ere, eztabaiden buru den pertsona han bertan aukera daiteke. Bere funtzioa eztabaiden garapenean ordena mantentzea eta zuzentzea da, Legeak zehaztutako formalitateak bete daitezela eskatuz.

Kontseilu Errektorearen idazkaria, bere ordezkoa edo Biltzarrak aukeratzen duena Biltzar Nagusiaren idazkaria izango da.

40. Artikulua.- Akordioak hartzea

Biltzar Nagusiak akordioak hartzen ditu bildutakoen edo ordezkatuaren boto sozialen gehiengo soilagatik edo, Legeak edo Estatutu sozialek gehiengo indartutakoak eskatzen ez badituzte, boto sozialen bi herena, inola ere, gainditu gabe.

Biltzar Nagusian bozketak prozedura telematikoen bitartez egin ahal izango dira, boto-emaileen guztien erabilerraztasuna bermatzen berdintasun-baldintzetan. Kasu horretan, konektatuta egoten diren bazkide guztiak bertaratutzat hartuko dira.

Biltzar Nagusiak bildutakoen boto sozialen bi hereneko aldeko botoarekin akordioak hartu behar ditu hurrengo kasuetan:

- a) Fusioa, zatiketa, transformazioa eta kooperatibaren disoluzioa.
- b) Obligazio eta partaidetza-tituluen jaulkipenak.
- c) Kapital sozialerako nahitaezko ekarpen berrien eskaera.
- d) Estatutu sozialen aldaketa dakarren edozein akordio.
- e) Barne-Araudiko onarpena.
- f) Bajaren kasuan diru-itzultzearen eskubidea duten ekarpenak Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe diru-itzultzea uka dezakeen ekarpenetan nahitaez eraldatzea, edo alderantzizko eraldatzea. Halaber, eraldatzearen akordioarekin ados ez dauden eta horren kontra bozkatu duten bazkideek, biltzar-agirian euren oposizioa agerian jarri, eta arrazoi justifikatuagatik Biltzar Nagusietara joan ez diren bazkideek ere Kontseilu Errektoreari idatziz eska dezakete baja horregatik, aipatutako eraldatze akordioa hartu denetik hilabete bateko epean, eta baja justifikatutzat hartuko da.

Kontseilu Errektorearen kontrako erantzukizun eginkizunak eta kargu sozialen baten ezeztatzeak bozketa sekretua eta bertaratuen botoen erdia gehi bateko aldeko gehiengoa beharko du, eguneko gai-zerrendan agertzen bada, edo boto sozialen botoen erdia gehi bateko aldeko gehiengoa, eguneko gai-zerrendan agertzen ez bada.

Zigor-espeditente, gora jotzeko errekurso izandako berrespenetako onepen, erantzukizun-eragineko ekitaldiaren edo organo sozialen kide-dimisioei buruzko akordioen kasuetan, erabaki horiek eragiten dituen pertsonak uko egin behar diote boto emateari erabakia hartu behar duen organo horren saioan, organo horren kideak izanda. Halere, pertsona horien asistentzia kontuan hartu behar da akordioa hartzeko behar den gehiengoa zehazteko. Hitzarmen horrek bertaratutakoen boto sozialen erdia gehi bateko aldeko gehiengoa behar du.

Biltzar Nagusiak, unibertsala izan ezean, ezin du akordiorik hartu gai-zerrendan agertzen ez diren gaietan, honako hauek izan ezik:

- a) Biltzar Nagusi berri baten deialdia
- b) Kooperatibaren kideek edo kanpoko pertsonak egindako kontu-zentsuraren gauzatzea.
- c) Kontseilu Errektorearen kontrako erantzukizun-eragineko eginkizuna, edo kargu sozialen baten ezeztatzea.

41. Artikulua.- Botoa emateko eskubidea eta ordezkariak

Bazkide bakoitzak boto bat igortzeko eskubidea du. Bazkide bat Biltzar Nagusira ezin joan denean, beste bazkide batek ordezkari izan dezake botoa ematean. Ordezkariak idatziz izan behar du eta saio baterako soilik. Biltzarraren presidentek ordezkariak onarpenak egingo ditu saioaren hasieran.

Bazkide bakoitzak beste bazkide baten ordezkari soilik izan dezake, hots, bazkide batek askoz jota bi boto eman ditzake.

42. Artikulua.- Biltzarraren agiria

Biltzar Nagusia amaitu ostean, Biltzarraren agiria bete behar da, presidentek eta idazkariak sinaturik, hurrengo puntuak jasoz:

- . Biltzarraren lekua eta data.
- . Bertaratuen kopurua, pertsonalki datozenak eta ordezkariak bereiziz.
- . Lehenengo edo bigarren deialdian gertatu den.
- . Gai-eztabaiden laburpena.
- . Biltzarraren agirian ageri behar diren bazkideen hitzaldiak, haiek eskatuta.
- . Hartutako erabakiak eta bozketen emaitzak.

Biltzar Nagusiaren agiriaren onarpena bi modutan egin daiteke:

- a) Biltzar Nagusia amaitu bezain pronto;
- b) Biltzarra egin eta hurrengo hamabost egun barru; horretarako presidentek eta Biltzarrean hautatutako agiriaren hartzaileek sinatu behar dute.

Edozein bazkidek hartutako akordioaren egiaztatpena eska dezake eta Kontseilu Errektoreak hura emateko beharra du. Boto sozialaren %5ek eskubidea du eskatzeko, egokia bada, Biltzarra egin baino bost egun lehenagoko baliodun aldirian, notario batek agiria jaso dezan.

43. Artikulua.- Hitzarmen sozialaren aurka-egitea

Biltzar Nagusiko akordioak, Legearen edota Estatutuen aurkakoak badira edo Kooperatibaren interesak kalteztuz, bazkide baten edo hirugarrenen onerako, aurkatuak izan daitezke, Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legearen 38. artikuluan ezartzen diren arauen arabera eta epearen barruan.

44. Artikulua.- Kontseilu Errektorea

Kontseilu Errektorea sozietatearen gobernu-organoa da; enpresa kudeatzen du eta, egokia bada, funtzioen, zuzendaritzaren ekitaldien, kontseilari delegatuen eta emandako ordezkari-eskubideen kontrol iraunkor eta zuzena du. Dena den, kompetentzia du jarduerako arau orokorrak ezartzeko, Biltzar Nagusiak jarritako politikarekiko menpetasunean, eta Legeak, araudiek eta estatutu hauek erabakitzen dituzten beste eginkizunak egiteko. Baita Legeek edo Estatutuek beste organo sozialei ez erantsitako kompetentzietan ere jorratzeko eskubidea du.

Presidentek, Kontseilu Errektorearen izenean, sozietatearen eta bere organoen ordezkariak du. Biltzar Nagusiak espresuki baimena ematen dio presidenteari maileguak eskatzeko eta sinatzeko Kooperatibaren izenean.

45. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen osaketa

Kontseilu Errektoreak 5 kide izango ditu gutxienez eta 9 kide gehienez; horiek guztiak Kooperatibaren bazkideen artean hautatuak, boto sekreturen bidez, Biltzar Nagusian.

Honako kargu hauek dira: presidentea, presidente ordea, idazkaria eta batzordekideak. Karguak banatzeko erantzukizuna du Kontseilu Errektoreak.

46. Artikulua.- Kontseilu Errektoreko kidearen iraupena, berritzea, derrigortasuna, baliogabetzea eta doakotasuna.

Kontseilu Errektoreko kidea izateko karguak lau urtetako epea du. Kontseilu Errektoreak partzialki berritzen da, denboraren eta kideen erdian, berrikuntzan presidentea eta idazkaria aldi berean egon gabe.

Kontseilari karguaren jardutea derrigorrezkoa da, berrautatzea edo kausa justifikaturen bat salbu.

Biltzar Nagusiak Kontseilu Errektorearen kideak ezezta ditzake hautatu izandako epea amaitu baino lehen. Hitzarmenak bertaratuen botoen gehiengo soila behar du, gai-zerrendan agertuz gero, edo boto sozialen gehiengo osoa, gai-zerrendan agertu ezean.

Kargu horien jarduteak ez du ordainketarik. Halere, kooperatibak kargu baten jardutean sortutako gastuak eta kalteak ordaindu behar ditu, Biltzar Nagusiak jarritako jarraibideekin.

47. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Kontseilu Errektorea 6 hilabeteen behin biltzen da, ohiko bileran, aurretik deialdia eginda; eta ezohiko bileran presidenteak deitzen duen aldioro, bere kabuz edota Kontseilu Nagusiaren edozein kidek eskatuta. Eskaera hori 10 eguneko epean atenditu ezean, eskaera egin zuenak deialdia egin dezake baldin eta Kontseilu Nagusiaren herena gutxienez ados badago.

Kontseilu Errektorea baliozkotasunez osatuko da gutxienez kideen erdia eta bat gehiago datozenean. Kontseilu Errektorearen kide batek beste kide bat soilik ordezkari dezake.

Kontseilu Errektoreak hitzarmenak bertaratutakoen edo ordezkaturakoen botoen gehiengo osoarekin hartzen ditu. Helburu hartarako, eta Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legearen 32.3 artikulua araberako, Kontseilu Errektorerako bertaratzeak izan nahi du berean parte hartzea, fisikoki zein birtualki, prozedura telematikoen bitartez. Presidentearen botoak berdinketarako konpontzen ditu.

48. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen fakultateen ordezkariak

Kontseilu Errektoreak fakultate batzuk ordezkari ditzake kide batengan edota Komisiotan, horretarako eta kontseilariekin berberekin osatuta, baita kudeatzailea edo koordinatzailea ere izenda ditzake; Kontseilu Errektorearen bi hereneko aldeko botoak derrigorrezkoak dira, baita Kooperatibetako Erregistro eskudunean izena-ematea ere.

Funtzioen ordezkariak kooperatibaren eguneroko erabakietara mugatuko da soilik eta Kontseilu Errektoreak hurrengo bileran berretsi behar du.

Dena den, Kontseilu Nagusiak hurrengo ahalmenak mantentzen ditu:

- a) Kooperatibaren kudeaketan jarduerako arau orokorrak ezarri, Biltzar Nagusiak jarritako politika orokorraren menpe.
- b) Ordezkatu den enpresa-kudeaketa zuzenean eta etengabe kontrolatzea.

- c) Biltzar Nagusiari kudeaketaren argibide-memoria aurkeztea, kontu ematea eta emaitzen egoztea eta esleipena proposatzea.
- d) Abalen edo fidantzen zerbitzua baimentzea.
- e) Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabeko uko egin ahal dituzten ekarpenen diru-itzultzeari uko egitea, 21. artikulua azaltzen duenaren arabera.

49. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen erantzukizuna

Kontseilu Errektorearen kideek ordezkatzeko duten karguan ardurarekin eta leialtasunarekin jardun behar dute eta enpresa-kudeaketa ordenatua burutu behar dute. Kooperatibaren, bazkideen eta hartzekodun sozialen aurrean solidaritatez erantzuten dute Estatutuen edota Legearen kontrako eginkizun kaltegarriak edo arduragabeak egiteagatik. Ez dute erantzuten, ordea, parte hartzen ez duten eginkizun edota hitzarmenaren kontrako botoa eman badute eta akordioaren kontrako botoa bilera-agirian agertzeko exijitu badute, edo Kontseilu Errektoreari dokumentu fede-emaila baten bitartez esan badute akordioa hartu zenetik hurrengo hamar egun barru.

Sozietate kooperatiba berak, bazkideen Biltzar Nagusiaren akordioaren bitartez, Kontseilu Errektorearen kontrako erantzukizun-eginkizuna jardun dezake, bileraren gai-zerrendan agertu ez arren. Eginkizunak hiru urte pasatu ostean preskribatzen du, erantzukizun-eginkizuna egin ahal izan zen unetik. Boto-sozialen %5a ordezkatzeko duen bazkide-talde batek erantzukizun-eginkizuna egin ahal izango du, kooperatibak ez badu egiten hilabete bateko epean erantzukizun-eginkizuna egin ahal izan zuen unetik, edo Biltzar Nagusiak erantzukizun-eginkizunaren kontrako hitzarmena hartuz gero. Hartzekodunek Kontseilu Errektorearen kontrako erantzukizun-eginkizuna ere jardun dezakete, baldin eta kooperatibak edo bere bazkideek berean ez baduten jarduten, ondare soziala gutxiegia dagoelako euren kredituak asetzeko.

Biltzar Nagusiak erantzukizun-eginkizuna egiteari uko egin diezaiolke, edonoz, baldin eta boto-sozialen %5a ordezkatzeko duen bazkide-talde bat gutxienez kontra ez badago.

Kontseilu Errektoreak egindako eginkizunak pertsona horien interesak galarazi izatekotan, bazkideei edota bazkide ez direnei dagozkien kalte-ordainketen salbu, preskripzio-unea aurreko paragrafoan agertutakoa izango da, eskatzailea bazkide izango balitz, edo urte osokoa, bazkidea ez balitz, Kode Zibilaren 1968 artikulua azaltzen duenaren arabera.

50. Artikulua.- Kontseilari karguan ekiteko bateraezintasunak eta galarazpenak

Honako pertsona hauek ezin dute Kontseilu Errektorean parte hartu:

- a) Kooperatibaren berezko jarduerekin zuzenean erlazionatzen diren Administrazio Publikoen zerbitzura dauden pertsonak.
- b) Adingabeak
- c) Kooperatibaren kontrako jarduera osagarriak edo konpetentzia-jarduerak egiten dutenak Biltzar Nagusiak baimendutakoak salbu.
- d) Galarazpenen menpe daudenak, alferrikakoak edo konkurtsatu ez birgaitutakoak, kargu publikoa ekiteko inhabilitazioa dakarren zigorrera kondenatuak, legeak edo xedapen sozialak ez betetzeagatik kondenatu larriak eta euren kargua dela eta merkataritzara eman ezin dutenak.

51. Artikulua.- Interesen gatazkak: Kontseilu Errektorearen kideen eta kooperatibaren arteko kontratuak

Kooperatibak berak Kontseilu Errektorearen edozein kideekin edota Zuzendaritzarekin behartu behar izanez gero, edo laugarren odolkidetasun-gradura arteko senideekin edo kidetasun-bigarreneko batekin, Biltzar Nagusiak baimendu beharko du. Erlazioak bazkide izateagatik badira baimena ez da beharrezkoa izango.

Kideek zeinengan interes-gatazka parte har dezan ezin dira parte izan bozketan. Aipatutako baimenik gabe hitzartutako kontratua deuseztagarria izan daiteke, berrespenari ekin ezean. Ez die hirugarrenek fede onean hartutako eskubideei eragingo.

52. Artikulua.- Kontu-hartzaileak: izenpena, ordainketa eta elkartzintasunak

Biltzar Nagusiak, bere bazkideen artean, 3 kontu-hartzaile aukeratu behar ditu, eta haiek 3 urtez jardungo dute.

Kontu-hartzailearen kargua doakoa da, baina kooperatibak sortzen diren gastuak ordaindu behar izango dizkie.

Kontu-hartzaile izaera Kontseilu Errektorearen kide, kudeatzaile edo koordinatzaile izaerarekin edo euren senideekin bateraezina da, Kataluniako Kooperatibetako Legearen 51. artikuluan ezarritako mugetan. Dena den, Biltzar Nagusiak bateragarritasuna baimen dezake Legearen 51.4 artikulua aurrez ikusten duen kasuan.

53. Artikulua.- Kontu-hartzaileen eginkizunak

Kontu-hartzaileek Biltzar Nagusiari urteroko kontuei buruzko txostena eta kontabilitateko beste dokumentuak aurkeztu behar dizkiote, Biltzar Nagusiak bere onespena eman ahal izateko. Hori egiteko gehiengo epea 30 egunekoa izango da Kontseilu Errektoreak dokumentazio egokia ematen dien momentutik. Kontu-hartzaileek kontuekin ados ez badaude, txosten berezia aurkez dezakete.

Biltzar Nagusiak kooperatibarekin zerikusia ez duten eta kontabilitatean adituak diren pertsonen ekitaldi ekonomikoaren kontuak egiazta ditzaten erabakia har dezake.

Kontu-hartzaileek edonoiz kooperatibaren dokumentazioa egiaztatzeko eskubidea dute.

Biltzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak edo kooperatibako bazkideen %15ek eskatzen badute, kontu-ikuskariak ekitaldi ekonomikoaren kontuak egiaztatu behar dituzte.

VI. ATALA- ESTATUTU SOZIALEN ALDAKETA, FUSIOA, ZATIKETA, DISOLUZIOA ETA KITAPENA

54. Artikulua.- Estatutu sozialen aldaketa

Estatutu sozialen aldaketei buruzko akordioa aurrera eramateko Biltzar Nagusian bertaratutako boto sozialen bi hereneko gehiengoak hartu behar du.

Kooperatiben Erregistro adituan estatutu sozialen aldaketa inskribatzeko Biltzar Nagusiaren aktako ziurtagiriarekin izen-ematearen eskaera erantsi behar da, eskritura publiko bati gehituta.

55. Artikulua.- Kooperatibaren fusioa eta zatiketa

Kooperatiba batekiko edo gehiagorekiko fusioa posiblea izango da haien arteko helburu sozialak bateraezinak ez badira.

Fusio-akordioa Estatutu hauetako 40. artikulua ezartzen dituen boto aldeko gehiengoaz. Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legearen 75. artikuluan ezarritako prozedura guttiz baliozkoa da.

Biltzar Nagusiak kooperatibaren zatiketa hitzar dezake bi zatitan Estatutu hauetako 44. artikulua ezartzen dituen aldeko botoen gehiengoaz. Zatiketari Kataluniako Kooperatibetako, 18/2002 Legearen 83. artikulua jartzen duena aplikatuko zaio.

56. Artikulua.- Disoluzioa eta kitapena

Kooperatiba disolbatzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Helburu sozialaren amaiera edo lortzeko ezintasuna.
- b) Bazkideen borondatea.
- c) Bazkide kopurua kooperatiba izateko legez beharrezkoa den gutxienekoaren azpitik murriztea, urte bat baino gehiagotan mantentzen bada.
- d) Kapital soziala legeak ezarritako gutxienekoaren azpitik murriztea, sei hilabete baino gehiagotan mantentzen bada.
- e) Estatutu hauetako 55. artikulua aipatzen duen fusioa edo zatiketa.
- f) Konkurtsoa edo kitapena.
- g) Legean jarritako edozein zergatia.

Desegindako kooperatibak bere nortasun juridikoa mantentzen du kitapena egiten den bitartean. Aldi horretan sozietatearen izenari "kitapenean" hitza gehitu behar izango zaio.

57. Artikulua.- Likidatzaileen izendapena eta eskuduntzak

Biltzar Nagusiak, isileko bozketan, bazkide likidatzailea izendatu egingo du. Biltzar Nagusiak likidatzaileak izendatu ezean, Kontseilu Errektorearen kideek egoera hori eskuratuko dute.

Estatutuen 56. artikuluan agertzen diren araututako zergatiren bat gertatuz gero, eta Biltzar Nagusiak kooperatibaren disoluzioa erabaki ezean, Kontseilu Errektorearen kideek, edozein bazkidek edo interesatu egoera duen edozein pertsonak epai-disoluzioa eta likidatzaileen izendapena eska dezakete.

Likidatzaileek beharrezkoak diren ekarpen guztiak egingo dituzte eta, aldi horretan, Biltzar Nagusiak biltzeari ekingo dio eta likidatzaileek kudeaketaren eta balantzearen berri emango dute Biltzar Nagusiak aprobata dezala.

58. Artikulua.- Ondare sozialaren esleipena

Kooperatibaren ondare soziala esleitzeko, heziketa eta sustapen kooperatiboko fondoa erabat errespetatu behar da eta hurrengo ordena jarraitu behar da:

- a) Zor sozialak kitatu.
- b) Bazkideei kapital sozialerako ekarpenak itzultzea, eguneratuta behar denean.
- c) Banatzeko den borondatezko erreserba-fondoa aplikatzea edo banatzea, balego, Estatutu sozialaren arabera.
- d) Soberakina, balego, heziketa eta sustapen kooperatiboaren fondora aplikatzea, kooperatiba elkartuta dagoen federazio-entitateara transferitua izateko. Kooperatiba elkartuta ez balego, Biltzar Nagusiak erabaki behar du Katalunian dauden zein kooperatibetako federazio-entitateen artean fondo honen zenbatekoa zuzendu behar den, beti aipatutako helburuekin erabil dadin. Biltzar Nagusiak ez badu egiten, fondoa Kataluniako Kooperatiben Konfederaziora zuzendu behar da.

Lehenengo xedapen gehigarria

Kataluniako Kooperatibetako 18/2002 Legearen testu moldatuaren irizpideen arabera, eta konkretuki, Lege horretako 11.s) artikuluekin, kooperatiba honek kooperatiben arteko parte-hartzea eta heziketa-sustapenaren konpromisoak bere egiten ditu.

Bigarren xedapen gehigarria

Kooperatiba honek handizkari izaera du eta txikizkari moduan jardungo du, Kooperatibetako 18/2002 Legearen 101. artikuluean arabera. Kooperatibako bazkideei ondasun emateak eta zerbitzu emateak ez dute salmenta izaerarik, kontsumitzaile taldekatuak baitira eta elkarrekin erosi dituztelako.

Hirugarren xedapen gehigarria

Estatutu hauek aurreikusten ez duen guztian, Kataluniako Kooperatibetako uztailaren 5eko, 18/2002 Legea ezarriko da.

Laugarren xedapen gehigarria

Kooperatibaren eta kooperatibako bazkideen artean sortutako gatazkak jarduera kooperatiboan edo kooperatibaren eta bera integratuta dagoen Federazioaren artekoak, baldin eta zuzenbide ados dagoen alderdien arteko xedapen libreko materiari buruzkoa bada, Lankidetzaren Kontseilu Gorenaren kontziliazioaren, bitartekotzaren edota arbitrajearen bitartez ebatziko dira, 171/2009 dekretuak azaltzen duenaren arabera, azaroaren 3koa. Dekretu honen bidez, Lankidetzaren Kontseilu Gorenaren aurrean kontziliazio, bitartekotza edota arbitraje prozesuen araudia ontzat ematen da (KGEO 5499 zenb, 2009 urteko azaroaren 5ekoa). Aldeak aipatutako arbitrajetik ateratzen den laudoa betetzeko espresuki konprometitzen dira edo, bere kasuan, adiskidetze edo bitarteko agirian bildutako akordioak betetzeko.